

Ekipamendu pertsonalaren merkataritza-sektorerako laguntzak

Euskal txikizkako merkataritzaren ekipamendu pertsonalaren azpisektorea mantentzeko laguntzen programa



aenkomer

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

Ekipamendu pertsonalaren merkataritza-sektorerako laguntzak

- Helburua
- Pertsona eta entitate onuradunak
- Baldintzak
- Zenbatekoa
- Aurkezteko epea eta dokumentazioa

Helburua

Laguntzen Aginduaren xedea da euskal txikizkako merkataritzaren ekipamendu pertsonalaren azpisektorea, beren konturako langileak edo autonomoak, ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak eta mikroenpresak eta enpresa txikiak babesteko eta zuzenean euskarri ekonomikoa emateko oinarriak ezartzea, COVID-19aren hedapena geldiarazteko hartutako neurrien eragina minimizatzeko eta

jarduera berrabiaraztea.

Onuradunak

- **Norberaren konturako langileak edo autonomoak.**
- **Ondasun-erkidegoak. Sozietate zibilak.**
- **Euskal txikizkako merkataritzako mikro eta**
- **enpresa txikiak.**

Egoitza soziala eta fiskala EAEn du, eta jarduera honako talde hauetan kokatzen da:

- **CNAE 47.71:** Jantzien txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan.
- **CNAE 47.72:** Oinetakoen eta larruzko gaien txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan.

Baldintzak

Pertsona eta erakunde eskatzaileek honako **baldintza hauek** bete beharko dituzte 2021eko otsailaren 15ean:

- enpresa-jardueraren egoitza soziala eta zerga-egoitza EAEn izatea eta bertan egotea
- laguntza eskatzen den merkataritza-establezimendua. EJSN
- 47.71 eta EJSN 47.72 taldeetan sartutako jardueraren batean aritzea.
 - Norberaren konturako langileen edo langile autonomoen kasuan, Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda egotea.
 - Erakunde eskatzaileak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egon beharko du.
 - Ogasunean eta Gizarte Segurantzari ordainketak egunean izatea.

Zenbatekoa

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen bidez gauzatuko dira laguntzak. 2021eko otsailaren 15ean alta-egoeran zeuden langileen kopuruaren arabera:

- 1-9 langileko establezimendua: 4.000 €
- 10 langile edo gehiago dituen establezimendua: 4.500 €

Langileen guztizko zenbaketan sartuko dira bai autonomoak bai soldatapekoak, lanaldi osoa edo partziala edozein dela ere, jardunean, aldi baterako lan-erregulazioko egoeran, lan-harremanaren etenean edo jarduera uztean.

Aurkezteko epea eta dokumentazioa

- Eskabideak aurkezteko epea 2021/03/09tik 2021/03/30era bitartekoa izango da.
- Izapideak telematikoak baino ez dira izango, eta eskabide bakarra aurkeztuko da establezimendu bakoitzeko, helbide honetan:
<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2021/epercom21/web01-tramite/eu/>
- Eskakerak ebaluatzeko, erregistro elektronikoaren data eta ordua hartuko dira erreferentziazat. Dokumentazioa zuzentzeko eskatuz gero, eskabidea baliozkotasunez osatzeko erabili den dokumentazioa erregistratzeko eguna eta ordua hartuko dira kontuan.

Aurkezteko epea eta dokumentazioa

• Aurkezteko epea eta dokumentazioa

- Kotizazio-kontuaren kode baten lan-bizitzaren txostena eta, langile autonomoaren kasuan, lan-bizitzaren txostena.
- Hirugarrenaren datuen alta edo aldaketa, beharrezkoa izanez gero.
- Banku-titulartasunaren ziurtagiria, hirugarrenaren altaren edo datu-aldaketaren kasuan eta ondasun-erkidegoa edo sozietate zibila bada.